

Ordizian, **2012ko irailaren 25ean**, UDALBATZA elkartu da UDALETXEKO BILKURA-ARETOAN **OHIKO BILERA** egiteko. Bertan izan dira honako hauek:

**BERTARATUAK:**

**BATZORDEBURUA:** Igor Eguren Izagirre jauna.

**BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Belén Maiza Urrestarazu andrea	BILDU taldea
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	BILDU taldea
Juan Mari Gereñu Aldasoro jauna	BILDU taldea
Eduarne Gutierrez Jauregi andrea	BILDU taldea
Imanol Iturrioz Lauzirika jauna	BILDU taldea
Iban Asenjo Garde jauna	BILDU taldea
Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna	EAJ taldea
Judith Otegi Lopez de Murillas andrea	EAJ taldea
Jose Ignacio Iturrioz Gotor jauna	EAJ taldea
Arantzazu Garin Garmendia andrea	EAJ taldea
Bittor Bolinaga Alzelai jauna	EAJ taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea

**BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK :**

**IDAZKARIA:**

Martin Iparragirre Mujika jn.

**KONTUHARTZAILEA:**

Gaixo dagoela eta ezin izandu etorri.

**ITZULTZAILEA:**

Izaskun Zubitur Iñarra

**BERTARATUAK**

## **EGUNEKO GAIAK**

### **EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:**

- 1.- 2012ko uztailaren 18an egindako Osoko Bilkurako akta onartzea.  
.....**4.orr.**
2. Ordiziako PSE-EE(PSOE)BILDU taldeak aurkeztutako mozioa. Haurdunaldia borondatezko etena eta osasun sexual eta ugalketaren legea aldatzeko proposamenari buruzkoa.  
.....**5.orr.**
- 3.- Bildu taldeak aurkeztutako mozioa "Preso Gaixoen Eskubideen aldekoa"  
.....**11.orr.**
- 4.- Kreditu transferentzia.  
.....**15.orr.**
- 5.- Aita Urdaneta 10eko udal etxebizitzaren esleipenerako prozeduraren kontu ematea.  
.....**16.orr.**

### **PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:**

## **GORABEHERAK**

## **GALDE-ESKEAK**

## **ORDUTEGIA**

**HASIERA ORDUA: 19.00ak.**

**AMAIERA ORDUA: 19:45ak.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

## **1.- 2012ko uztailaren 18an egindako Osoko Bilkurako akta onartzea.**

### Proposamena

**2012ko uztailaren 18an ohiko deialdian egindako bileraren akta-zirriborroa onartzea.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Akats hauek daudela somatu da:

#### Santamaria jn

Aktaren onarpenaren puntua ikusi aurretik adierazi du ez zaiola deialdia posta elektronikoz iritsi eta bestalde "USB"ari buruz ere izandako gertaeraren berri eman du, ez zaiola ere hau eman.

#### Alkate jn.

Erantzun dio deialdia beti bezala egin zelakoaren ustean zegoela, baina horrela izan ez denez, gai hau argitu eta zuzenduko duela esan du.

#### Aktaren onarpena:

#### Bolinaga jn

Eskatu du euskerako bertsioko aktan PNV taldea jartzen duen lekuan EAJ taldea jartzea.

Zuzenketa hauek egin eta gero, bozketara pasa da puntua.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0.

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena, aipatutako zuzenketarekin, onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 2. puntuaren berri eman du.

## **2.- Ordiziako Udaleko talde sozialistak aurkeztutako mozioa. Haurdunaldia borondatezko etena eta osasun sexual eta ugalketaren legea aldatzeko proposamenari buruzkoa.**

Alkate jaunak hitza Dubreuil jaunari eman dio eta honek, 2012ko irailaren 19an egin zen Plenorako Gaien Batzordean jasota geratu zen bezala, Ordiziako PSE-EE(PSOE)k eta BILDU taldearen artean adostutako proposamena irakurtzeari ekin dio:

### Proposamena

Ordiziako PSE-EEren iritziz, Bilduk osoko bilkuran aztertzeko aurkeztutako mozioa, aurkeztutako testuaren 1., 2. eta 3. puntuetara mugatzen da. Ildo horretan, horiek eragiten dituzten argudioak ez dira onartzekoak edo gaitzestekoak. Hala ez bada, gure jarrera bestelakoa litzateke, kontuan hartuta aurkeztu den arrazoiketa edo motibazioarekiko gure desadostasunak. ARGITU

Horiek horrela, mozioaren 1., 2. eta 3. puntuen aldeko botoa emango dugu Zuzenbide Estatuaren funtsekin errespetuzko jarrera antzematen dugula kontuan hartuta, bai 1. paragrafoan ('indarrean dagoen legeria' betetzea eskatuta), bai 2.ean ere ('nazioarteko eta Espainiako legeei helduz', baldintzapeko askatasuna eskatuta).

Gure ikuspuntutik, hortaz, mozioa gizatasunean oinarritzen da (gizatasunaren ikuspuntutik, halako egoeren aurreko kezka logikoa da), eta Zuzenbide Estatuaren premisetara lotzearen inguruan oinarritzen da, nazioartean zein Espainian indarrean dagoen legeria aintzat hartzen baitu.

Azken horri helduz, Espetxeen Erregelamenduko 196. artikulua, 'hirurogeita hamar urtetik gorakoen eta gaixo terminalen baldintzapeko askatasuna' izenburua daramanak, azken horiek 'gaixo oso larriak, sendaezinak' edo 'atzerakorik ez dutenak' gisa identifikatzen ditu.

Erregelamendu bereko 104. artikulua 'prozedura sendaezinak dituzten gaixo oso larriak' hirugarren graduan sailka daitezkeela ezartzen du (baldintzapeko askatasunerako beste baldintzetako bat), 'delitu egiteko zailtasunari eta izan dezaketen arrisku eskasiari erreparatuta, arrazoi humanitarioa eta pertsonaren duintasuna tarteko'.

Gure iritziz mozioaren puntuek ere (1.a eta 2.a) legeria hori dute hizpide. Eta, arrazoizkoa deritzogu eskumena duten agintariei eskatzea arau horiek ezar ditzatela; izan ere, halaxe egin dute ETako 23 presoen kasuan, gaixotasun larriak pairatzeagatik baldintzapeko askatasuna emanda. Azken urteotan ez zaio baldintzapeko askatasuna ukatu ETako kide Josu Uribetxebarria Bolinagaren antzeko egoeran (bizi-itzaropena urtebetetik beherakoa du pairatzen duen minbiziaren ondorioz) egon den ezein presori. Azken-azkena aipatzeagatik. Edo Mikel Ibañez Oteizaren kasua -1988an Francisco Javier Zabaleta enpresaburuaren hilketan laguntzeagatik zigortua-; arrazoi humanitarioengatik baldintzapeko askatasuna eman zitzaion 2011ko urtarrilean (hiru hilabeteren buruan hil zen).

Mozioaren lehen motibazioari helduz (gaixo dauden presoekiko kezka), gure iritziz luze biziko ez den norbaitek bere etxean hiltzeko aukera izatea gizarte zibilizatu baten adierazlea da. Nahiz eta neurri horiek jasotzen dituzten presoetako batzuek beren biktimekiko hala jokatu ez.

Horregatik guztiagatik, Bilduk aurkeztutako mozioak jasotzen dituen puntuen aldeko botoa emango dugu.

Ezin uka dezakegu gustu handiz hartuko genukeela udal-gobernuak, legealdia dagoen honetan, gaixo preso horiek beraiek nahiz beraien erakundeak eragindako biktimekiko aipamen solidarioren bat jasoko zuen punturen bat, mozioren bat, proposamenen bat aurkeztea. Ez dugu ukatuko begi onez hartuko genukeela ETAREN indarkeriak eragindako egoerengatik udal honek kezka bat adieraztea. Txalotu ere egingo genukeen ETA behin betikoz desagertzea eskatuko zukeen punturen bat aurkeztea.

Bistan da ez dela halakorik izan, nahiz ez dugun itzaropena galtzen. Eta itzaropena hizpide hartua dugunez, aurkeztu duten mozioan puntu bat gehitzea eskatzen dugu. Puntu hau gehitzea eskatzen dugu. Hala ere, ez gehitzeak ez du esan nahi mozioarekiko gure aldeko botoa aldatuko dugunik.

Hortaz, 4. puntua litzateke, eta honela idatzita:

Halaber, indarrean dagoen legeriaren barruan ETAko presoak kaleratzea eta birgizarteratzea ahalbidetze aldera, Euskadin bakean bizikidetzarako funtsezko urrats bat emate aldera, eta euskal gizarteak iraunkorki eta erabateko gehiengoz eskatutakoarekin bat egite aldera, ETA premiatzen dugu berehalakoan eta behin betiko desager dadin. Aldi berean, balio demokratikoekiko gure konpromisoa adierazten eta berresten dugu, eta barkamenik zintzoena eskatzen dugu gure posizio politikotik biktimekiko eta horien senideekiko min, sufrimendu nahiz umiliaziorik txikiena eragin badugu.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Dubreuil jn

Adierazi du PP alderdiak 2/2010 legea aldatu nahi duela eta mozioaren bitartez aldaketa horren aurrean kexa azaldu, eta bestaldetik legea dagoen modura mantendu dadila eskatu nahi dela.

#### Asejon jn.

Adierazi du nahiz eta PSE alderdiak aurkeztu proposamena, esan den bezala PSE eta Bildu artean adostutako mozioa dela eta bi alderdietatik proposatutako ekarpenak daudela. Azkenik bere poza azaldu du akordio honetara iristea posible izan delako.

#### Sanatamaria jn

Adierazi du lege hau Madrilen onartu zenean bere alderdiak alde bozkatu zuela, eta era berean bere taldeak aurkezten den mozioaren alde bozkatuko duela, nahiz eta bere alderdian gai honi buruzko jarrera kontrajarriak egon.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 3. puntuaren berri eman du:

### **3.- Bildu taldeak aurkeztutako “Preso gaixoen eskubideen aldeko” mozioa.**

#### Alkate jn

Adierazi du aurkezten den mozioan PSE alderdiak Plenorako Gai Batzordean egindako proposamena sartuta dagoela, lortutako adostasuna azpimarratu du, eta ondoren mozioaren puntuak irakurri ditu:

#### Proposamena

#### **Preso gaixoen eskubideen aldeko**

#### **MOZIOA**

Giza-eskubideen ikuspuntutik egoera gordina ari gara bizitzen. Azken asteetan, Josu Uribetxeberria presoaren osasun egoera atzeraezina izan dugu mahai gainean. Legea beteaz, eta berandu bada ere, baldintzapeko askatasun egoeran geratu da preso arrasatearra. Hala ere, badira oraindik oso gaixorik eta kartzelan jarraitzen duten presoak. Hamahiru herritar hain zuzen ere. Egoera hau, beren egoera fisikoa eta beren senitartekoen ezinegona okertu eta areagotzea ari da eragiten. Pertsona gisa eta preso gisa zor zaizkien eskubideak ukatuz.

Hamahiru preso gaixo hauek sufriten dituzten gaixotasunei behar bezalako jarraipena egitea bateraezina da espetxean egotearekin, honako arrazoi hauengatik: espetxeak ezin duelako eskaini tratamendu bereziturik; gaixotasun hauek arreta zorrotza behar dutelako; kartzelan egonik, balizko larrialdi baten aurrean erantzunik emateko gaitasun ezagatik; Josu Uribetxeberriaren kasuan, argudio guzti hauek dagoeneko Madrilgo Barne Ministeritzatik ere berretsi dira.

Josu Uribetxeberriaren baldintzapeko askatasunaren ondoren, beste hamahiru dira gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoak eta aipatutako argudio berdinak kontutan izanik, kaleratu behar direnak. Hamalau preso eta beraien senitartekoak zigor gehigarria ari dira nozitzen. Preso hauei baldintzapeko askatasuna ukatuz, giza-eskubideen oinarritzko zutabeak urratzen ari dira Madrilgo arduradun politikoak.

Nazioarte zein estatu espainiarreko araudi, zuzenbidearen printzipio eta giza-eskubideen aldeko aldarrikapenak, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten pertsona presoen eskubideak errespetatzeko beharra adierazten dute. Gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten pertsona horiek, beharrezkoa duten tratamendua eta zaintza medikua behar bezalako baldintzetan jasotzea, oinarritzko eskubidea delarik.

Hau guztia kontuan harturik, honako puntu hauek aurkezten ditugu Osoko Udal Batzarrera, bertan eztabaidatuak eta onartuak izan daitezten:

1. Udal honek, preso gaixoen egoera larriaren aurrean, bere kezka adierazten du. Era berean, indarrean dagoen legea beteaz, urrats errealak emateko deia egiten dio Madrilgo Gobernuari.
2. Udal honek, nazioarteko eta Espainiako legedia oinarritzat hartuaz, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten hamahiru presoen baldintzapeko askatasuna eskatzen du. Beharrezkoa duten osasun tratamendua baldintza egokietan jaso dezaten eta egoera honek, bai beraientzat zein beren senitartekoentzat ere, zigor gehigarria suposatu ez dezan.
3. Erabaki honen berri, Madrilgo Barne Ministeritza eta Kartzela Zaintzako epaileari bideratzea".

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Santamaria jn

Adierazi du bat egiten duela PSEk proposatu zuen aldaketarekin, baina kontuan hartuta preso gehiago egon daitezkeela mozioan aipatzen diren 13 presoegoera berdinean, eskatu du mozioa ez 13 presoi mugatzea, baizik eta egoera berdinean egon daitezkeen preso guztiei.

#### Alkate jn.

Adierazi du nahiz eta mozio hau horrela diktaminatu Plenorako Gai Batzordean, ontzat ematen duela Santamaria jaunak egindako proposamena.

#### Dubreuil jn

Dubreuil jaunak bere iritzia azalduz honako idatzia irakurri du:

*Ordiziako PSE-EEren iritziz, Bilduk osoko bilkuran aztertutako aurkeztutako mozioa, aurkeztutako testuaren 1., 2. eta 3. puntuetara mugatzen da. Ildo horretan, horiek eragiten dituzten argudioak ez dira*

onartzekoak edo gaitzestekoak. Hala ez bada, gure jarrera bestelakoa litzateke, kontuan hartuta aurkeztu den arrazoiketa edo motibazioarekiko gure desadostasunak. ARGITU

Horiek horrela, mozioaren 1., 2. eta 3. puntuen aldeko botoa emango dugu Zuzenbide Estatuaren funtsekin errespetuzko jarrera antzematen dugula kontuan hartuta, bai 1. paragrafoan ('indarrean dagoen legeria' betetzea eskatuta), bai 2.ean ere ('nazioarteko eta Espainiako legeei helduz', baldintzapeko askatasuna eskatuta).

Gure ikuspuntutik, hortaz, mozioa gizatasunean oinarritzen da (gizatasunaren ikuspuntutik, halako egoeren aurreko kezka logikoa da), eta Zuzenbide Estatuaren premisetara lotzearen inguruan oinarritzen da, nazioartean zein Espainian indarrean dagoen legeria aintzat hartzen baitu.

Azken horri helduz, Espetxeen Erregelamenduko 196. artikulua, 'hirurogeita hamar urtetik gorakoen eta gaixo terminalen baldintzapeko askatasuna' izenburua daramanak, azken horiek 'gaixo oso larriak, sendaezinak' edo 'atzerakorik ez dutenak' gisa identifikatzen ditu.

Erregelamendu bereko 104. artikulua 'prozedura sendaezinak dituzten gaixo oso larriak' hirugarren graduan sailka daitezkeela ezartzen du (baldintzapeko askatasunerako beste baldintzetako bat), 'delitu egiteko zailtasunari eta izan dezaketen arrisku eskasiari erreparatuta, arrazoi humanitarioa eta pertsonaren duintasuna tarteko'.

Gure iritziz mozioaren puntuek ere (1.a eta 2.a) legeria hori dute hizpide. Eta, arrazoizkoa deritzogu eskumena duten agintariei eskatzea arau horiek ezar ditzatela; izan ere, halaxe egin dute ETAko 23 presoek kasuan, gaixotasun larriak pairatzeagatik baldintzapeko askatasuna emanda. Azken urteotan ez zaio baldintzapeko askatasuna ukatu ETAko kide Josu Uribetxebarria Bolinagaren antzeko egoeran (bizi-itxaropena urtebetetik beherakoa du pairatzen duen minbiziaren ondorioz) egon den ezein presori. Azken-azkena aipatzeagatik. Edo Mikel Ibañez Oteizaren kasua -1988an Francisco Javier Zabaleta enpresaburuaren hilketan laguntzeagatik zigortua-; arrazoi humanitarioengatik baldintzapeko askatasuna eman zitzaion 2011ko urtarrilean (hiru hilabeteren buruan hil zen).

Mozioaren lehen motibazioari helduz (gaixo dauden presoekiko kezka), gure iritziz luze biziko ez den norbaitek bere etxean hiltzeko aukera izatea gizarte zibilizatu baten adierazlea da. Nahiz eta neurri horiek jasotzen dituzten presoetako batzuek beren biktinekiko hala jokatu ez.

Horregatik guztiagatik, Bilduk aurkeztutako mozioak jasotzen dituen puntuen aldeko botoa emango dugu.

Ezin uka dezakegu gustu handiz hartuko genukeela udal-gobernuak, legealdia dagoen honetan, gaixo preso horiek beraiek nahiz beraien erakundeak eragindako biktinekiko aipamen solidarioren bat jasoko zuen punturen bat, mozioren bat, proposamenen bat aurkeztea. Ez dugu ukatuko begi onez hartuko genukeela ETAREN indarkeriak eragindako egoerengatik udal honek kezkaren bat adieraztea. Txalotu ere egingo genukeen ETA behin betikoz desagertzea eskatuko zukeen punturen bat aurkeztea.

Bistan da ez dela halakorik izan, nahiz ez dugun itxaropena galtzen. Eta itxaropena hizpide hartua dugunez, aurkeztu duten mozioan puntu bat gehitzea eskatzen dugu. Puntu hau gehitzea eskatzen dugu. Hala ere, ez gehitzeak ez du esan nahi mozioarekiko gure aldeko botoa aldatuko dugunik.

Hortaz, 4. puntua litzateke, eta honela idatzita:



*Halaber, indarrean dagoen legeriaren barruan ETAko presoak kaleratzea eta birgizarteratzea ahalbidetze aldera, Euskadin bakean bizikidetzarako funtsezko urrats bat emate aldera, eta euskal gizarteak iraunkorki eta erabateko gehiengoz eskatutakoarekin bat egite aldera, ETA premiatzen dugu berehalakoan eta behin betiko desager dadin. Aldi berean, balio demokratikoekiko gure konpromisoa adierazten eta berresten dugu, eta barkamenik zintzoena eskatzen dugu gure posizio politikoetik biktinekiko eta horien senideekiko min, sufrimendu nahiz umiliaziorik txikiena eragin badugu.*

#### Alkate jn.

Berriro hitza hartu eta bere poza azaldu du akordio batera iristea posible izan delako, adierazi du, agintaldi honetan biktimen gaiari heldu beharko zaiola, eta gai hau pendiente dagoen gai bat dela bai Ordizia eta baita Euskal Herri osoan, jarraitu du esanez gaia eztabaidatu, eta dagozkion erabakiak hartu beharko direla, eta bera pertsonalki ez daukala inongo arazorik horretarako biltzeko. Garbi utzi du adierazpen hauek bere izenean egiten dituela zeren eta oraindik talde bezala eztabaidatu gabe dagoelako. Bestalde, baita garbi utzi du, agintaldi honetan berak ez duela planteatuko inongo eztabaidarik ETARI desagertu dadila eskatzeko, edota exorzitua Euskal Herritik alde egiteko edo antzeko eskaerarik, bukatu du esanez pendiente dauden gaiak alde batera utzita, mozioaren bitartez indarrean dagoen lege bat, eta kasu batzutan aplikatzen ez dena, zuzen aplikatu dadila eskatzen dela.

Beraz, onartutako proposamena ondoren jasotzen den eran geratu da:

### **Preso gaixoen eskubideen aldeko MOZIOA**

Giza eskubideen ikuspuntutik egoera gordina ari gara bizitzen. Azken asteetan, Josu Uribetxeberria presoaren osasun egoera atzera ezina izan dugu mahai gainean. Legea beteaz, eta berandu bada ere, baldintzapeko askatasun egoeran geratu da preso arrasatearra. Hala ere, ba dira oraindik oso gaixorik eta kartzelan jarraitzen duten presoak. Egoera hau, beren egoera fisikoa eta bere senitartekoan ezinegonak okertu eta areagotzea ari da eragiten. Pertsona gisa eta preso gisa zor zaizkien eskubideak ukatuz.

Preso gaixo hauek, sufritzen dituzten gaixotasunei behar bezalako jarraipena egitea bateraezina da espetxean egotearekin, honako arrazoi hauengatik: Espetxeak ezin duelako eskaini tratamendu berezituari; gaixotasun hauek arreta zorrotza behar dutelako; kartzelan egonik, balizko larrialdi baten aurrean erantzunik emateko gaitasun ezagatik; Josu Uribetxeberriaren kasuan, argudio guzti hauek dagoeneko Madrilgo Barne Ministeritzatik ere berretsi dira.

Josu Uribetxeberriaren baldintzapeko askatasunaren ondoren, badira gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten beste presoak ere eta aipatutako argudio berdinak kontutan izanik, kaleratu behar direnak. Egoera horretan dauden preso eta beraien senitartekoak zigor gehigarria ari dira nozitzen. Preso hauei baldintzapeko askatasuna ukatuz, giza eskubideen oinarriko zutabeak urratzen ari da Madrilgo arduradun politikoak.

Nazioarte zein estatu espainiarreko araudi, zuzenbidearen printzipio eta giza eskubideen aldeko aldarrikapenek, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten pertsona presoen eskubideak errespetatzeko beharra adierazten dute. Gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten pertsona horiek, beharrezkoa duten tratamendua eta zaintza medikua behar bezalako baldintzetan jasotzea, oinarritzko eskubidea delarik.

Hau guztia kontutan harturik, honako puntu hauek aurkezten ditugu Osoko Udal Batzarrera, bertan eztabaidatuak eta onartuak izan daitezen:

**1.- Udal honek, preso gaixoen egoera larriaren aurrean, bere kezka adierazten du. Era berean indarrean dagoen legea beteaz , urrats errealak emateko deia egiten dio Madrigo gobernari.**

**2.- Udal honek, nazioarteko eta espainiako legedia oinarritzat hartuaz, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten preso guztientzat baldintzapeko askatasuna eskatzen du. Beharrezkoa duten osasun tratamendua baldintza egokietan jaso dezaten eta egoera honek, bai beraientzat zein beren senitartekoentzat ere, zigor gehigarria suposatu ez dezan.**

**3.- Erabaki honen berri, Madrilgo Barne Ministeritza eta Kartzela Zaintzako Epaileari bideratzea.**

#### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

#### **4.- Kreditu transferentzia.**

##### Proposamena

Tokiko Gobernu Batzordeak 2012-9-25eko bileran aldebereko itzulpena egiteko ekipo bat, aurikularrak eta mikroak erosteko proposamena aztertu zuen, aurrekontua 9.798,89 eurokoa zen.

Proposamen honek ez du aurrekontu-krediturik eta 623.434.11.02 partidako (0-100 Parkea) 10.000 euroko kreditua erabili daitekeela ikusi da.

Proposamen honekin inbertsio partida baten kreditua jaisten da (nahiz eta beste inbertsio bat sortzen den), eta gainera kreditua funtzio talde batetik bestera pasatzen da. Beraz, aurrekontuaren exekuzioaren 3. oinarriaren arabera, Osoko Bilkurak onartu behar du aldaketa.

#### AKORDIO PROPOSAMENA

Ondorengo kresitu transferentzia onartzea:

#### KREDITUA HANDITZEA

PARTIDA	IZENA	KOPURUA
623.111.00.02	Aldibereko itzulpena	10.000,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>10.000,00</b>

#### KREDITUA GUTXITZEA

PARTIDA	IZENA	KOPURUA
623.434.11.02	0-100 Parkea	10.000,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>10.000,00</b>

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

#### Eztabaida

#### Alkate jn.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Adierazi du nahiz eta kontuhartzaile jauna osatzeke egon, pixnaka hasita dagoela lanean, berak prestatutako espedientea dela eta bere oniritziarekin, eta idazkari jaunari eskatu dio espedienteari azalpena eman dezala.

#### Idazkari jn

Puntu honeri buruzko azalpenak eman ditu.

#### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### **5.- Aita Urdaneta 10eko udal etxebizitzaren esleipenerako prozeduraren kontu ematea.**

#### Idazkari in

Burutu den prozedurari buruzko argibideak eman ditu, laburbilduta honako hau azalduz:

2012ko abuztuaren 9an eta onartutako oinarrietan jasotakoaren arabera, egin zela zozketa publiko eta honela geratu zela esleipendunen ordena:

- Dorotea Ruiz Altimaberes.
- Idoia Zeberio Etxaniz.
- Iosu Bilbatua Herrera.
- Ibai Lamarca Soto.
- Jon Sarasola Barandiaran.

Idoia Zeberio andreak uko egin dio esleipenari, eta azkenean bi hauek geratu dira:

- Dorotea Ruiz Altimaberes (2D etxebizitza-kontratua eginda)
- Iosu Bilbatua Herrera (2B etxebizitza-kontratua eginda).

Behin-betiko ordezkoen zerrenda:

- Ibai Lamarca Soto.
- Jon Sarasola Barandiaran.

**Jakinaren gainean geratu dira.**



### **6.- Eskaerak eta galderak**

Ez dago.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, idazkariak egiaztatzen dut.